



OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
Kide anitzeko organoa:	Osoko Bilkura
Deialdi-mota:	Ohikoa
Data:	2023ko otsailaren 16a
Iraupena:	19:07tik 20:17ra
Lekua:	Osoko bilkuren aretoa
Udalburutza:	Unai Gutierrez Urkiza
Idazkaritza:	Oiartzta Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
INMA ELORZA BERGARA	BAI
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
DORLETA MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ PÉREZ	BAI
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO	EZ
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA	BAI
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ	BAI
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA	BAI
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA	BAI
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ	BAI



Murgian, 2023ko otsailaren 16an, 19:07ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiarza Urquijo Alaña andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu dira.

1.- AKTEN ONARPENA.

Kontrol-jarduera	Alde	Aho batez
------------------	------	-----------

Aurreko bilkuretako aktak ikusita, onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak emandako ebazpenak ikusirik, hau da, 2022ko abenduaren 19ko 487-2022 Dekretutik eta 2023ko urtarrilaren 12ko 05-2023tik 50-2023ra bitartekoak, Udalbatza jakinaren gainean geratu da

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA zinegotziak 2023ko urtarrilaren 23ko 19/2023 Dekretuari buruz galdetu, eta ALKATEAK ebazpen hori azaldu du.

3.- POSTA OFIZIALA.

Udaleko erregistro orokorrean sartu eta atera den dokumentazioa eta ordainketa-aginduak ikusita, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



4.- 2023. URTEKO ARAUGINTZA PLANA.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko otsailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du

KONTUAN HARTUTA Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 132. artikuluan ezartzen duela administrazio publikoek urtero argitaratuko dutela araugintza-plan bat, hurrengo urtean onartzeko aurkeztuko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak bilduko dituen. Era berean, Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko dela xedatzen da.

KONTUAN HARTUTA aurreikuspen horren helburua dela ordenamendu juridikoaren gardentasuna eta iragartzeko gaitasuna areagotzea, eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzea. Aldi berean, araugintza-ekimena gardenagoa izango da; izan ere, horren edukia argitaratuta, gainerako administrazio publikoek eta herritarrek aldez aurretik jakin ahal izango dute administrazio jakin batek zer arau onartuko dituen.

IKUSIRIK Idazkaritzaren 2023ko otsailaren 13ko txosten juridikoa, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Proposamena AZTERTUTA, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu ondoren, **Udalbatza** ados agertu da **aho batez**, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin, hots, EH BILDU (5), ZUIA BAI (4) eta ALDERDI POPULARRA (1), eta, beraz, Udalbatzako



kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin. Hala, Osoko Bilkurak honakoa **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. - Zuiako Udalaren 2023rako Urteko Araugintza Plana onartzea. Plan hori eranskin gisa atxiki zaio aktari.

BIGARRENA. - Zuiako Udalaren Urteko Araugintza Plana www.zuia.eus web orrian argitaratzeko agintzea.

HIRUGARRENA. - ALKATE-UDALBURUARI, edo haren legezko ordezkariari, ahalmena ematea Udalaren izenean eta ordezkariaren erabaki hau betearazteko behar diren jarduketak egin ditzan.

ERANSKINA – 2023. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

ZUIAKO UDALAREN 2023. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

MOTA	EKIMENAREN IZENBURUA	ORGANOA		AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA	HASIERAKO ONESPENERAKO AURREIKUSITAKO SEIHILEKOA
		EKIMENA	ONESPEN A		
Ordenantza fiskala	Zerga eta prezio publikoen ordenantzak berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	2. seihilekoa
Ordenantza	Kontzejuentzako eremu guztietako dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Bai	1. seihilekoa
Ordenantza	Kirolaren arloko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Bai	1. seihilekoa



Ordenantza	Zuiako udalerrian etxebizitza alokatzeko laguntzak emateko oinarriak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	2022-2023 ikasturteko garraiorako eta ikasketei eta prestakuntzari laguntzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	Kulturaren, euskararen sustapenaren eta/edo gizartearen arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Bai	1. seihilekoa
Ordenantza	Euskara ikasteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzea edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	Zuiako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea	Alkatetza	Osoko Bilkura	Bai	1. seihilekoa



	eta/edo berrikustea.				
Ordenantza	Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak aldatzea edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	Mendekotasun -egoeran dauden edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten pertsonak edo horretarako izapideak egiten ari direnak, Zuiako udalerrian, beren etxebizitzan barruan, zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak ematea ezartzen duten oinarriak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	2022/2023 ikasturtean, Haurreskolak partzuergoaren mendeko udal haur-eskolan matrikulatutako haurrak dituzten familientzako laguntzen	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa



	oinarri arautzaileak aldatzea edo berrikustea.				
Ordenantza	Zuiako kirolari gazteentzako eta desgaitasuna duten kirolarientzako o dirulaguntzen 2023ko oinarri arautzaileak aldatzea edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	Zuiako baserriak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak ematea ezartzen duten oinarriak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa
Ordenantza	Zuiako udalerrian pertsonak hartzeko programak sustatzeko oinarri arautzaileak aldatzea eta/edo berrikustea.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Ez	1. seihilekoa

5.- MARTXOAK 8 - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------



INMA ELORZA BERGARA zinegotziak hitza hartu, eta 2023ko otsailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.

IKUSIRIK Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguneko adierazpen instituzionala.

LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ zinegotziak hitza hartu, eta adierazi du, bere iritziz, nahikoa izango litzatekeela paragrafo hau jasoko duen Adierazpen bat egitea: *"Zuiako Udalak bere gain hartu behar du berdintasunezko gizarte baten eraikuntzan dugun erantzukizun sozial eta politikoa, errotik eraldatzen diren eta eremu guztietan eragiten duten zeharkako politika feministak diseinatuz, indarkeria matxistak ezabatzen laguntzeko", "behar duguna" kendu eta "jarraituko dugu" jarrita.*

Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

CONCHI LOPEZ LOPEZ zinegotziak hitza hartu, eta esan du 2023ko otsailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean iruzkin mingarri bat egin zitzaiola sentitu zuela, ALKATE-UDALBURUAK isiltasuna eskatu zionean. Udalbatzak gaia eztabaidatu du, eta alkate-udalburuak azaldu du iruzkin horrek ez duela inolako loturarik adierazpen horrekin, eta, hala ere, minduta sentitu bazen, barkamena eskatzen diola.

AZTERTUTA proposamena, Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu dute eta Udalbatzaren **Osoko Bilkura** bat dator **aho batez**, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin, hau da, EH BILDU (5), ZUIA BAI (4) eta ALDERDI POPULARRA (1), eta, beraz, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak ordezkatzeko duen quorumarekin, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. - Zuiako Udalaren 2023ko Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguneko adierazpen instituzionala onartzea, erantsitako eranskinean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA. - Adierazpena udalaren www.zuia.eus webgunean argitaratzeko agintzea.



HIRUGARRENA. - ALKATE-UDALBURUARI, edo haren legezko ordezkariari, ahalmena ematea Udalaren izenean eta ordezkaritza erabaki hau betearazteko behar diren jarduketak egin ditza.

ERANSKINA –2023KO 8M-KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

"MARTXOAREN 8A, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

2018an deitutako greba feministak mugarri bat ezarri zuen emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren historian, eta premia eta bidegabekeria asko jarri zituen erdian eta agenda publikoetan. Gaur egun, mugimendu horren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bidean eman diren aurrerapenen aurkako korrantea ari da sortzen.

Martxoaren 8a emakumeek lortutako eskubide guztiak ospatzeko eguna da, baina aldarrikapenerako eta eskubideen alde borrokatzeko eguna ere bada, baita oraindik konkistatu ez direnak errebindikatzeko eguna ere.

Gizarte gisa, oraindik ere hausnartzen jarraitu behar dugu, eta urratsak eman behar ditugu emakumeek beren lankide gizonen eskubide berberak izan ditzaten; hala ere, arreta berezia jarri behar dugu gazteengan, baina, horretarako, helduek erreferente izan behar dute. Belaunaldi berrien aldaketa nekez gertatuko da gure eguneroko bizitzan balioak irakasten dituzten eta lehendik zeuden genero-rolak eta -estereotipoak transmititzen dituzten jarrera matxistak izaten jarraitzen badugu.

Rol eta estereotipo horiek oso errotuta jarraitzen dute gizartean, eta genero-mandatu hausten duten gero eta aniztasun eta erreferente gehiago dauden arren, oraindik ere oso errotuta dago emakume edo gizon izateak eta horrela jokatzek zer esan nahi duen.

Ezin dugu alde batera utzi indarkeria matxistako kasuen gorakada, iragan abenduan gertatu baitzen hilketa gehien Estatuan historian zehar, hamahiru zehazki, eta ondoren urtarrilean, non hamar egunetan lau emakume hil zituzten.



Benetan oso egoera larrian gaude, eta toki-erakundeok ere erne egon behar dugu.

Zuiako Udalak bere gain hartu behar du berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko dugun erantzukizun sozial eta politikoa, eta, horretarako, zeharkako politika feministak diseinatu behar ditu, errotik eraldatzen direnak eta eremu guztietan eragiten dutenak, indarkeria matxistak ezabatzen laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

LEHENENGOA.- Berdintasun-egitura baliabide ekonomikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko.

BIGARRENA.- Emakumeekiko eta mugimendu feministarekiko elkarrizketa ahalbidetuko duten espazioak bultzatzea.

HIRUGARRENA.- Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko ekintzak garatzea.

LAUGARRENA.- Ikastetxeetan sareak ehuntzen jarraitzea, bai Murgiako BHIIn, bai Virgen de Oro Eskolan, berdintasunaren eta tratu onen balioak lantzeko.

BOSGARRENA.- Genero-ikuspegia udaleko arlo eta jarduera guztietan zeharkako bihurtzeko lanean jarraitzea.

Gorbeialdeko Mugimendu Feministak martxoaren 8ko mobilizazioetarako aurten egingo duen deialdia Zigoitian egingo da, eta, beraz, herritar guztiak animatzen ditugu horietan parte hartzera."

6. ZUIAKO EHBILDU-REN MOZIOA, EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN KONTRAKOA.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------



AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA zinegotziak hitza hartu, eta 2023ko otsailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.

IKUSIRIK Zuiako EHBILDUK aurkeztutako mozioa, euskarari egindako eraso judizialaren aurrean.

IKUSIRIK ZUIA BAIk euskararen judizializazio sistematikoaren harira aurkeztutako ordezkapen-zuzenketa.

LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ zinegotziak hitza hartu, eta erabaki judizialak errespetatzeko eskatu du. Zinegotziaren esanetan, horiekin ados egon ezean, legea eta errekurtsua jartzeko sistema judiziala daude. Ondoren, zinegotziak adierazi du harrigarria iruditzen zaiola ZUIA BAIk "errealitate soziolinguistikoa" terminoa erabiltzea, uste baitu ez dela inola ere kontuan hartzen alderdi hori, eta are gutxiago Araban. Zinegotziak gaineratu du joera argia dagoela euskara eta haren erabilera alderdikoia inposatzeko. Euskara sustatzeko neurriak beste batzuk izan beharko liratekeela eta euskara kulturaren zati gisa babestu eta defendatzearen aldekoa dela adierazi du. Berretsi du ez dagoela ados euskararen erabilera alderdikoiarekin, eta bi mozioak ildo horretatik doazela uste duenez, bere botoa horien aurkakoa izango dela.

Udalbatzak luze eta zabal eztabaidatu du gaia.

AZTERTUTA **ZUIA BAIren ordezkapena zuzentzeko** proposamena, Udalbatzaren **Osoko Bilkurak, gehiengo osoz**, hau da, ZUIA BAIren (4) aldeko botoarekin, eta EHBILDUren (5) eta PARTIDO POPULARraren (1) aurkako botoekin, eta, beraz, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak ordezkutzen duen quorumarekin, **ERABAKI DU EZ ONARTZEA ZUIA BAIk aurkeztutako ordezkapen-zuzenketa.**



Ordezkapen-zuzenketarako proposamena bertan behera geratu da, eta EHBILDUK aurkeztutako **mozio**-proposamena (eranskin gisa doa atxikita) AZTERTU ondoren, **Udalbatzak, gehiengo osoz**, hau da, EHIBILDUREN (5) eta ZUIA BAIren (4) aldeko botoarekin eta ALDERDI POPULARren (1) kontrako botoarekin, eta, beraz, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak ordezkatzeko duen quorumarekin, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. - Zuiako EHBILDUK euskarari egindako eraso judizialaren aurrean aurkeztutako mozioa onartzea, honekin batera doan eranskinean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA. - ALKATE-UDALBURUARI, edo haren legezko ordezkariari, ahalmena ematea Udalaren izenean eta ordezkariaren erabaki hau betearazteko behar diren jarduketak egin ditzan.

*ERANSKINA – EHBILDUREN MOZIOA EUSKARARI
EGINDAKOERASO JUDIZIALAREN AURREAN*

*"EHBILDUREN MOZIOA EUSKARARI EGINDAKO ERASO
JUDIZIALAREN AURREAN*

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak (EAEAN) euskararen aurkako epai bat eman du berriro 2023an. Zehazki, epaitegiek, CCOOK eskatuta, atzera bota dute azpikontratutako zerbitzuetan gutxieneko euskara-maila eskatzeko Udalak hartutako erabakia. Erabaki dute euskara ezin dela baldintza gisa ezarri udalerriko kultura-zerbitzuez arduratzen den enpresa bat kontratatzeke lehiaketetan.

Hori ez da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako mota horretako lehen epaia. Lehenago, udal-administrazioen euskara sustatzeko beste ekimen batzuk baliogabetu dituzte epaitegiek, besteak beste: Lasarte-Oriako Udalak 2018an hurrei zuzendutako kultura-jardueretarako dirulaguntzen ordenantza; 2021ean



Atarrabian ezarritako hizkuntza-eskakizunak, euskararen ezagutza talde organikoaren lanpostu guztietan meritu izan dadin; 2022an Laudioko Udaleko langile baten hizkuntza-eskakizunari buruzko erabakia, etab.

Hizkuntza-politikaren judizializazioaren esparruan ulertu beharreko epaiak eta erabakiak egon dira. Izan ere, gaur egun ezarritako ofizialtasunaren ondorio juridikoen irakurketa are murriztaileagoa egiten ari da, epaien eta jurisprudentiaren bidez. Bide horretatik, euskal herritarren eskubideak are gehiago murriztu nahi dituzte, ofizialtasunaren irakurketa laburragoa eginez. Herritarrek udal-zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, eta erakunde publiko guztiek, baita judizialek ere, eskubide hori bermatu behar dute.

Epai hori, euskararen aurkakoa ez ezik, EAEko araudiaren eta udal-autonomiaren aurkakoa ere bada. Alde batetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea urratzen du. Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko legea garatzen duen azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak oso argi uzten ditu euskarari lehentasuna emateko bideak. Gainera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Toki Erakundeen Legeak eta 2019ko Dekretuak ere ezartzen die udalei euskara lehenesteko beharra, hizkuntza-normalizazioan urratsak egiteko.

Aurrekoa kontuan hartuta, EH Bildu udal-taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onar dadin:

1. Zuiako Udalak irmoki salatzen ditu epaitegiek hasitako hizkuntza-politikaren judizializazioa eta euskararen normalizazioaren eta euskaldunen hizkuntza-eskubideen aurka ematen ari diren epaiak.



2. Zuiako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei, epaitegiei eta eragile politiko, sindikal eta sozialei eskatzen die herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko urratsak egin ditzatela eta euskara sustatzearen alde egin dezatela.

3. Zuiako Udalak, indarrean dagoen legeria betez, honako konpromiso hauek hartu ditu:

- Herritarrek beren harremanetan lehen hitza euskaraz izateko eskubidea bermatzea.
- EAEko bi hizkuntza ofizialetan udal-funtzionamendu osoa bermatzeko urratsen plan bat gauzatzea.”.

7.- UDALAREN LURZATIAK EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ESKU JARTZEKO ERABAKIA, IKASTETXEA ERAIKI DEZAN.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko otsailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.

IKUSIRIK udalaren lurzatiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku uzteko erabaki-proposamena, ikastetxea eraiki dezan.

KONTUAN HARTUTA Zuiako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin izandako elkarrizketen ondoren (Zuiako Oroko Andre Mariaren ikastetxe publikoa eraberritu eta birkokatzeko), fisikoki ezinezkoa dela erreforma hori egitea, aldamenean espazio librerik ez dagoelako, eta Paules Ikastetxearen eraikinean (udalaren jabetzakoa hau ere), gaur egun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen den lekuan, birkokatzeko egindako kudeaketek ez zutela emaitzarik izan,



Hezkuntza Sailaren esku lursail bat jartzea erabaki du, haur, lehen eta bigarren hezkuntzarako ikastetxe berri bat eraikitzeko.

KONTUAN HARTUTA Udalak, 2008ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran, Udalbatzako kideen gehiengo osoarekin, Murgiako 2. poligonoko 41., 42. eta 43. lursailak erostea erabaki zuela, 10.000 m² inguruko azalerarekin, aipatutako Sailaren esku jartzeko, hezkuntza-erabilerarako erabiltzeko, eta bertan ikastetxe berriaren eraikuntza kokatzeko.

KONTUAN HARTUTA 2009ko abenduaren 14an, Murgiako 2. poligonoko 41., 42. eta 43. lurzatiaren salerosketaren eskritura publikoa formalizatu zuela Udalak, Murgiako Domingo de Sautu kaleko eta Bitorianoko errepideko bidegurutzearan, Murgiako ikastetxe berria eraikitzeko, gehienez ere bost urteko epean.

KONTUAN HARTUTA, geroago, 2012ko ekainaren 14ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, 2011ko martxoaren 10eko osoko bilkuran hartutako erabakia aldatu zuela, eta **Lagapena** hitza aldatu zuela, **eta lur horiek eskura jarri zituela.**

KONTUAN HARTUTA erabaki hori berriro ere hartu behar dela.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzaren **Osoko Bilkurak aho batez**, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin, hau da, EHIBILDU (5), ZUIA BAI (4) eta ALDERDI POPULARRA (1), eta, beraz, Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak ordezkatzeko duen quorumarekin, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. - Murgiako Domingo de Sautu kalearen eta Bitorianoko errepideko bidegurutzearan artean dauden Murgiako 2. poligonoko 41., 42. eta 43. lurzatiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku uzteko erabakia onartzea, Murgiako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berria eraikitzeko, gehienez ere bost urteko epean. Horrela, adierazitako epean erabilera hori ematen ez bada edo hurrengo hogeita hamar urteetan erabilera hori galtzen bada,



lagapena amaitutzat joko da eta Udalari itzuliko zaizkio bere ondasun eta akzesio guztiak.

BIGARRENA. – Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari jakinaraztea.

HIRUGARRENA. - ALKATE-UDALBURUARI, edo haren legezko ordezkariari, ahalmena ematea Udalaren izenean eta ordezkaritzan erabaki hau betearazteko behar diren jarduketak egin ditzan.

8.- TXOSTENAK

ALKATEAK hitza hartu, eta E-P-387 gaiaren berri eman du, 2023.02.09koa, zerbitzu orokorretakoa, eta honako erreferentziaduna: "*Gorbeia*ko Parke Naturaleko Parketxean plaka fotovoltaikoak instalatzeko behar diren baimenei buruzko informazio-eskaera". Zehazki, sistema fotovoltaiko bat instalatu nahi dela adierazi du, eta aipatutako eskaeran interesdunek horri buruz eskatu behar dituzten baimenei buruz galdetu dute.

ALKATE-UDALBURUAK jakinarazi du Informazio Batzordea deituko dela 2023ko otsailaren 24an, besteak beste, aurrekontuen likidazioa eta HAPOk SAR-04ri 2022.07.01ean egindako alegazioaren ebazpena [E-2031] aztertzeko.

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA zinegotziak hitza hartu, eta jakinarazi du, alde batetik, Udalaren barruko euskararen erabilera-plana onartzea aurreikusten dela, eta, bestetik, Udalerriko euskararen erabilera-plana [Gorbeialdeko Kuadrillak egina]. Adierazi duenez, hainbat bilera egin ondoren, aipatutako azken planaren ildo nagusiak diseinatu dira, eta, unea iristen denean, informazio zehatzagoa emango da, eta hura zehazteko parte hartu ahal izango da.

9.- GALDERAK ETA ESKAERAK.



ALKATE-UDALBURUAK galderak eta eskaerak egiteko txanda ireki, eta honako hauek egin dira:

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA zinegotzia 2023-02-09ko E-P-396 gaiari buruzko informazioa aipatzen hasi da, zerbitzu orokorreari buruzkoa, erreferentzia hau duena: "*Baias Garaiaren hornidura eraikitzeako proiektua aurkezteko gonbidapena*". 2023ko otsailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean eztabaidatu zen, osoko bilkura honen aurreko egunean.

Udalbatzak berriro eztabaidatu du gaia.

LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ zinegotziak egur-eskariei buruz galdetu du; zehazki, eskaria handitu den ala ez jakiteko informazioa eskatu du. ALKATEAK azaldu du korrespondentzia hori egin zela Batzordeei 2024ko eskaerak emateko eskatu zitzaielako. ALKATEAK adierazi du 2023ko datuak bilduko dituela.

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA zinegotziak berriz ere hitza hartu, eta kiroldegiaren lizitazioan zenbat enpresak parte hartu duten galdetu du. ALKATEAK gaiaren berri eman du.

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA zinegotziak 2022ko abenduaren 22ko osoko bilkuran eskatutako txosten juridikoari buruz galdetu du. ALKATEAK azaldu du Udalari aholkularitza ematen dion taldea prestatzen ari dela.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:17an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaria,